

EIRE, unibertsitatean euskararen alde eragiteko irakasleen elkarte

SUMARIO

La Asociación de profesores universitarios vascoparlantes EIRE (Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarte), se ha constituido legalmente tanto en la Comunidad Foral de Navarra como en la Comunidad Autónoma Vasca a lo largo del año 2000, tras un proceso de creación que se inició en 1998. Su legalización en las provincias vascas del Estado Francés es inminente. Los objetivos de esta asociación son estrictamente universitarios, dirigidos por un lado al desarrollo y normalización completos y sostenibles del euskara en todos los ámbitos de las universidades ubicadas en las Comunidades de Navarra, País Vasco y provincias de Iparralde, y por otro a la mejora de la comunicación entre los profesores universitarios vascoparlantes independientemente de su procedencia personal o ubicación universitaria. Los medios que utiliza para su labor en pos de los objetivos marcados son de naturaleza y estilo estrictamente universitarios –entrevistas, informes, gestiones, ruedas de prensa, revistas, congresos y conferencias– esto es, respetuosos en la forma pero firmes en sus contenidos. Actualmente cuenta con cerca de 200 socios y amigos de EIRE.

1. KRONOLOGIA

1998ko apirilaren 20an, Leioan, EIRE sortzeko ideia eta proposamena plazaratu ziren. Egun hartatik aurrera, Euskal Herriko unibertsitate guztietan hainbat bilkura egin ziren, hainbat zirriborro eta proposamen aztertu, hainbat lan, elkarrizketa eta buruhauste igaro. Sorkuntza-prozesuan 260 unibertsitate-irakasle inguruk parte hartu zuen eta 1999ko ekainaren 12an “Batzar Irekia” egin zen Bilbaon, Bizkaiko Batzar Nagusien areto bikainean. Horretan, EIREren izaera eta funtzionamendua ebazten zituen Txostena eztabaidatu eta onartu zen, eta halaber, Batzorde Eragile berri bat izendatu, elkartearen legezkatzea burutzeko. Egun hartan sortu zen egiaz, soziologikoki, EIRE.

1999ko abenduaren 18an, Bilbaon baita ere, EIREren Legezkatze-Batzarrea egin zen, non estatutuak onartu eta lehenbiziko zuzendaritza hautatu ziren. Aurten, 2000. Urtean zehar, zuzendaritza berriak elkarte Nafarroako Erkidego Foralean eta Euskal Autonomia Erkidegoan legezkatu ditu; alabaina, Iparraldean legezkatze falta da oraindik.



Durango, 6-XII-2000. EIREren Batzar Nagusia. Iñaki Zabaleta (Koordinatzaile Nagusia) eta Jabier Arrasate (Idazkaria).

2. ZERGATIAK

Unibertsitatearen esparrua funtsezkoa da euskal hizkuntz komunitatearen garapen oso eta eutsigarrian. Horregatik, garrantzitsua zen euskal unibertsitate-irakasleen elkarre bat sortzea, bai Euskal Herriko unibertsitateetan euskararen garapen eta normalkuntzaren alde lan eta eragin egiteko, bai unibertsitate guztietako (bertako eta kanpoko) euskal irakasleen artean komunikazioa hobetzeko. EIREren moduko elkarte batean bi eginkizun horiek ardatz dira eta lagundu egiten diote euskal hizkuntz komunitateari.

Euskal Herrian dauden unibertsitateak izaera desberdinekoak dira: batzuk pribatuak, besteak publikoak; batzuk campus batean kokatuta, besteak zenbaitetan banatuta; batzuk titulazio asko eskainiz, beste batzuk gutxi, eta baten bat (Udako Euskal Unibertsitatea) unibertsitate-ikastaroak nagusiki; batzuk nahiko berriak dira, eta beste batzuk historia franko luzea dute. Azkenik, Iparraldearen kasuan, kanpoko unibertsitate batzuen zentroak dira gehienak. Errealitate desberdin hori zenbakitan hone-lar jar dezakegu: bost unibertsitate oso, hiru unibertsitate-zentro bakartu (Iparraldekoak), eta beste bi edo hiru unibertsitate-gune berezi (UEU horien artean).

Euskal Herriko unibertsitate eta unibertsitate-esparru horietan guztietan euskararen garapenak eta normalkuntzak nahiko egoera desberdinak erakusten ditu. Batzuetan aurreraurrats nabarmenak eman dira, beste batzuetan ez horrenbeste. Egoera desberdintasun hauek kontuan ditu EIREk bere jardunean, eta euskararen garapen oso eta eutsigarriaren aldeko lan eta eragina tokian tokira eta unibertsitatean unibertsitatara egokitzen ditu. Horrekin batera, hala Euskal Herriko nola beste



Durango, 2000-XII-6. EIREren Batzar Nagusia.

herrialdeetako euskal unibertsitate-irakasleen arteko komunikazioa hobetzen eta orain arteko gabeziak gainditzen ahalegintzen da.

EIRE “euskararen gizarte erakunde” bat da, bere buruaren jabe eta euskararen bizia-
ren alde jarria. Izan ere, EIREk erreferentzia modura gogoan ditu *Euskararen Unibertsoa*
deituriko mugimenduaren izpiritu, lan-era eta diskurtsoa.

3. HELBURUAK ETA EGINKIZUNAK

EIREren helburu orokorrak hauexek dira:

1. Euskal Herriko unibertsitateetan euskararen garapen oso eta eutsigarria –nor-
malkuntza– lortzea irakaskuntzan, ikerkuntzan, barne eta kanpo kudeaketan eta gai-
nontzeko zereginetan, unibertso propioa izateko asmotan.
2. Unibertsitateko euskal irakasleen artean komunikazioa bultzatzea.
3. Euskal unibertsitatearen alde lan egitea eta Euskal unibertsitate-barrutia era-
tzea.

Helburu orokor horiek jomuga estrategiko zehatz batzuekin uztartzen dira: euskal
lerroak sendotzen lan eta eragin egitea; euskal irakaskuntza eta ikerkuntzaren eten-
gabeko hobekuntzaren alde lan egitea; informazioa elkarren egitea; eta gizarteko eta
unibertsitateko beste euskal talde eta erakundeekin harremanak lantzea.

Eginkizunei dagokienez, lau kontzeptutan batzen dira zeregin estrategikoak: Euskal Herriko unibertsitateetako erabakiguneetan eta erabakigileengan *eragin egitea*; bertako eta kanpoko unibertsitateetan dauden euskal irakasleen artean *komunikazioa trukatzea*; Euskal Herriko unibertsitateetan euskararen egoera eta berrireragiten dioten gaien inguruan jazotzen diren gertakizunen *informazioa ematea*, bai unibertsitate-komunitateari eta bai gizarteari; azkenik, euskara-unibertsitatea binomioaren *eztabaidagunea* izatea, euskal unibertsitatearen ereduaren eztabaida barne.

Helburu orokor horiek helburu estrategiko batzuetan zehazten badira, eginkizun estrategikoak ere eginkizun eta baliabide praktiko batzuetan gauzatu behar dira. Hauexek dira azken hauek: elkarrizketak, bisitak, aldizkariak, txostenak, kongresuak, hitzaldiak, prentsaurrekoak, eta antzekoak. Jakina, unibertsitate bakoitzean eginkizun praktiko hauek bertako egoerara egokituko dira.

Lan-estiloa ere zorrotz zaintzen du EIREk, eta bere araudi eta estatutoetan onartuta daukan legez, gizalegezko eta kortesiazko jokabidea erabiliko du beti, baina irmotasunik, sendotasunik eta eraginkortasunik galdu gabe.

4. BAZKIDEAK ETA HIZKUNTZA

Gaur egun 150 *EIREkide* inguru daude elkartean, alegia, bazkide oso, eta beste 60 inguru *EIRElagun*, hau da, elkartearekin ados egon, bertan parte hartu eta informazio guztia jasotzen dutenak, baina bazkide ez direnak. *EIRElagun* izateko ez da eskatzen euskal unibertsitate-irakasle izatea. Dena den, orain arteko *EIRElagun* guztiak unibertsitateko euskal irakasleak dira.

EIREk bere barne-bizitza eta lana euskaraz egingo du. Elkartetik kanporako zereginak ere euskaraz egiten ahaleginduko da, eta behar denean, egoki ikusten duen erdara ere erabiliko du.

5. EGINDAKO LANAK

Orain arteko lan handienak elkarte bera sortzen, legeztatzen eta martxan jarri joan dira. Inori ez baitzaio ahanzten Euskal Herri osoa hartzen duen elkarte bat zutik jartzea neketsua eta hari finez josiako lana izaten dela.

Eraginaren alorrean ere hainbat lan egin dira denbora labur honetan. 1999-2000 epealdian, zuzendaritza Euskal Herriko ia unibertsitate guztietako agintariekin bildu da –errektore edo/eta errektoreordeekin– EIREren aurkezpena egin eta euskararen garapenaren aldeko eskaria luzatu eta laguntza eskaintzeko. Harrera oso egokia izan da guztietan. UPV-EHUren kasuan, errektore taldea aldatu berria denez, euskararako errektoreorde berriarekin biltzeko hitzordua eskatuta daukagu baina oraindik ez dugu aukerarik izan.

Informazioaren alorrean EIREren aldizkariaren lehenbiziko alea argitaratu da. Bertan, 1999-2000 ikasturtean Euskal Herriko unibertsitateetan euskararen egoeraren gaineko txosten bat argitara eman da. Aldizkariaren izena “*eireKa*” da, eta Euskal Herriko unibertsitate-irakasle euskaldun guztien artean banatu da. Alabaina, oraindik hastapenetan dago.

6. ANTOLAKETA

EIREren antolaketa eta zuzendaritzak kontuan hartzen ditu euskal hizkuntz komunitatearen zabalera eta banaketa geografikoa, unibertsitateen desberdintasun eta kokapenak, unibertsitate bakoitzean bertako EIREkideen garrantzia eraginaren helburuan, eta euskal unibertsitate-irakasleen nazioarteko barreiadura. Hurrengo oinarritzko antolaketa du: bazkideen batzar nagusia, zuzendaritza-batzordea, eta *unibertsitateko EIRE*.

Bazkideen Batzar Nagusia EIREko bazkide guztiak osatzen dute eta organo gorena da.

Zuzendaritza-batzordea elkartearen jardute eta kudeaketa iraunkor eta eguneroak arduratzen da, besteak beste. EIREren zuzendaritza-batzordeak hamalau kide ditu orain. Lau, elkarteko kargudunak dira (koordinatzaile nagusia, koordinatzaileordea, idazkaria eta diruzaina), eta beste hamarrak unibertsitate desberdinetako ordezkariak dira, era haztatu batean ebatzita. UPV-EHUK 3 ordezkari ditu, campus bakoitzetik bat; Deustuko unibertsitateak 2, campus bakoitzetik bat; Nafarroako U. Publikoak 1 (NUP); Mondragon Unibertsitateak 1; Iparraldeko zentroek 2; eta UEUK 1. Orain, Universidad de Navarran EIREkide berriak egin direnez, horko ordezkaria ere izanen da zuzendaritzan.

Hirugarren maila ***Unibertsitateko EIRE*** izenekoak osatzen du. Unibertsitate edo campus bakoitzean, bertako EIREkideek nahi badute, beren "*Unibertsitateko edo campuseko EIRE*" sor dezakete. Organo hori Batzar Nagusiaren aginduetara dagoen arren, jardute propioa du dagozkion helburuak eta eginkizunak bere unibertsitate-errealitate-ra egokitu eta bertan gauzatzeko.

Zuzendaritzan dauden unibertsitate-ordezkariak beren unibertsitate-esparruko EIREkideek hautatzen dituzte, eta "elkarteko kargudunak" EIREren Batzar Nagusiak. Azken hauek, derrigorrez, unibertsitate desberdinen artean txandatuaz joaten dira, partehartze eta aniztasuna bermatzeko.

Iñaki Zabaleta Urkiola